

POSTARIA
Maidar Alcalde
Beasain, 17 urte

Bigarren solairua:

“Gaua zen eta Chicagoko kaleetako giroa misteriotsua erabat. Duela gutxi ustutako kaleetan katuen miaoak baino ez ziren entzuten eta lurruna errepideetatik zerurantz ateratzen zen, egunean zehar pilatutako beroaren adierazgarri. Marlon detektibea bere bulegoan aurkitzen zen kasu interesgarri bat noiz iritsiko zain. Hankak mahai gainetik kendu eta kapel grisa jantzi ostean kalera atera zen. Orduan emakume harekin egin zuen topo, lurrin berezia zuen emakumearekin...”

Oraingoan ere betiko leloan erori naiz. Badirudi nire burmuin honek detektibe edo gansterrei buruzko istorioak baino ezin dituela asmatu. Beharbada nire idazle egunei amaiera emateko garaia iritsi da, baina hasi ere ez badira egin, nola bukatuko dira dagoeneko?

Kafeontziaren hotsak nire pentsamenduetatik aldendu ondoren, aulkitik altxatu eta Marlon detektibeari buruz idatzitako lerroak jasotzen zituen orria lau zatitan puskatu dut. Harraskatik hartutako katilu zikin bat kafez bete eta honen usainaren azken zipriztinak ere aprobetxatuz, leiho aldera zuzendu ditut nire urratsak. Baina kafearen gozapenak gutxi iraun du. Hortxe dago, nire etxeko atarian. Postaria da.

Begirada kanpoaldera zuzendu dudan momentuan bere bizikleta zaharra paretaren kontra uzten ari zen. Eguneroko piura nazkagarria du. Gizon txikia da eta hain argala ezen hezurak azalez baino ez dituela inguraturik ematen baitu. Bere tximek aspalditik ez dute xaboa gertutik ikusi. Betazpi sakonez azpimarratutako begizulo amaiga-beak ditu, bekain narratsak eta betile urriak eta motzak. Sudur gorria eta ardo hatsa bere zaletasun nagusiaren adierazgarri dira. Azkenik, aho txikiak eta ezpain laburregiak itxura berezia ematen diote goizegi zahartutako aurpegi zimurtuari.

Ibiltzen hasitakoan besaburuak aurrera bota eta lepoa uzkuetzearen ondorioz konkorr bat agertzen da bere sorbaldan. Bizikleta handiegia da berarentzat, hankak motzak baititu. Hori dela eta ipurdia aulkitxotik altxatu eta alde batera eta bestera ibili behar izaten du pedalei eragin ahal izateko. Honela pixkana-pixkana behatzak ikusten uzten duten oinetakoak urratzen joan da.

Egunero herria mugatik mugara kurritzen du, hori baita bere lanaren betebeharrerako bat. Orain nire etxean burutzen ari da eskutitzen banaketa baina ez dut uste horrelako pertsona batek berri onik ekar diezadakeenik.

Eskerrak badoala. Orain nire liburuaren idazketarekin jarrai dezaket.

“Gau hartan, hurrengo kolpearen azken zehaztasunak erabakitzen ari ziren gauean, Giovanni berandu iritsi zen Milango jatetxe hartako soto ke-tsuari burutzen ari zen bilerara. Horrek italiar mafiaren buruzagi gorenei susmarazi zien...”

Zazpigarren solairuan:

– Bai, bai. Arratsaldean ikusiko dugu elkar eta mintzatuko gara horretaz. Zu lasai egon. Beno, gero arte. Agur bai.

Ene! Nire lagun julitak telefonoz deitzen didan bakoitzean belarria bero-bero gelditzen zait, labean sartu izan banu bezala. Oraindik goiz da erosketak egitera irteteko, beraz, etxean lanen bat egin beharko dut. Sukaldeko leihoan kokatutako loreek uraren beharrean aurkitzen direla oroitzuz, beraien egarria asetzerazuzendu naiz. Lehen nire seme kutuna hemen bizi zenean, berak laguntzen zidan lan honetan, baina bakarrik nagoenetik... Bera bai mutil jatorra.

Urez betetako bi litroko ontzi pisutsua erdi arrastaka leihoraino eraman dut eta geranioetarantz altxatzeko orduan bizkarrean ziztada bat sentitu dut. Hau mina! Ontzia okertu eta likido gardena petalo eta hostoetatik labaintzen hasi da, loreek segituan burua altxatu dutelarik. Bat-batean, nire beso zaharren ahultasunagatik, ontzia eskuetatik irristatu eta kalerantz erortzen hasi da. Berehala nire begi bistatik galdu da norbait jo ote duen jakin ezinik geldituz. Leihotik begira nengoela semea begiztatu dut.

Gaur ere oso dotore dator. Ondo lisatutako alkandora, prakak eta enbor indartsua gorai patzen duen txaketa. Bideko hautsak ere beldurra dio bere zapatetan etzateari. Ile beltza, indartsua, albo marra baten bidez orraztua, nik neuk txikitan erakutsi nion bezala. Aurpegi tinkoa, eguzkiak

gogortutakoa. Bertan begi sakonak, sudur ttipittoa eta aho gozoa ditu.

Bizikleta horretan zaldi gainean doan Erdi Aroko zalduna ematen du, printzesaren bat bere zain egongo balitz bezala. Eta horrela da. Zenbat eta zenbat berri on banatuko ditu nire semeak hainbeste harrotzen nauen postari lanean?

Bere bidea aurrera jarraitu beharrean aurkitzen da eta azken aldi honetan ez du astirik izaten ama bisitatzera igotzeko. Badira zortzi bat hilabete elkarrekin luzaroan egoten ez garela. Denbora luzean zehar nire zazpigarren solairuko leihotxotik ikustearekin konformatu behar izaten dut. Gaur ere hori gertatu da.

Tinkili-tankala sukaldera itzuli eta ordua ikusita kaleratzea erabaki dut. Agian Julitaren etxera abiatuko naiz bere arazoekin burua berotu diezadan.

—*****—

Nahiz eta oraindik ere gertakizun horren inguruan ezjakintasunean murgilduta egon, sinestera derrigortuta aurkitu naiz. Gaur bezalako egun bat zela diote nire oroitzapen urrun eta ilunek. Zu bezalako irakurle bati istorio herrikoi bat kontatzen ari nintzaion. Orain arte irakurri ahal izan duzun istorio herrikoia hain zuzen ere. Orduan, mahaia eta orain dela bi urte gurasoek oparitutako idazlumaren artean aurkitzen zen paperak behearako bilakaera jasan zuen. Bere kolore txuria izpi ilunago batzuen eraginez, erdialdean bereziki zikintzen joan zen. Horrek begiak itxi eta irekitzera

behartu ninduen dagoeneko nire azpikontzientearen jokaera zalantzan jarri nuelarik. Ez da harritzekoa.

Begirada paper hartara bueltatu nuenean erdialdeko orban hartatik formaren bat itxuratzen ari zela ikusi nuen. Gizon bat zen, ipotxaren antzekoa, baina txikiagoa oraindik eta galant jantzitakoa. Oraindik sinestu ezinik nengoela, ipotxak salto egin zuen. Paperak kolore zuria berreskuratu zuen. Tupustean nire begiek pertsonaia txikitxo eta lodikote batekin egin zuen topo. Arropa beltza zeraman eta ilea soilik buru borobilaren alboetan zuen.

– Ezin diozu hori egin –hasi zitzaidan hizketan.

– Nik? Hori?

– Irakurleari. Berak ez du merezi hain objektibotasun gutxi duen kontakizun horren lekuko izatea. Alde batetik idazlea aurkitzen dugu. Honek elaberriak idatzi eta idatzi, baina inoiz ez du arrakastarik izan. Honela, bere arazoari ihes egin nahian, errua postariari botatzen dio inoiz editorialaren berririk ez eramateagatik. Beraz, postariarenganako gorrotoak honi zuzendutako begiradak garrazten dizkio.

Bestetik ama. Zer esan dezaket ama bati buruz? Nola ikusiko du ama batek bere barnetik jaiotako izaki hori begi txarrez? Zure kontakizun horretan, ohartzen bazara, andre horrek ezin du loreak ureztatzeko ontzia bi metro beherago bereizi, baina postaria zehaztasun handiz deskriba dezake ordea. Kontuan hartzen badugu zazpigarren solairuan

bizi dela... hortik atera kontuak. Zer diozu honi guztiari buruz?

Oraindik harridurazko keinua aurpegitik ezabatu ezinik zera ihardetsi zuen:

- Zuzen zaude. Hala ere, zer proposatzen duzu hau konpontzeko? Ba al duzu aholkurik niretzako?

- Beharbada bai. Utzidazu joaten.

- Nora?

Orduan nire egoerak okerrera jo zuen. Nola barneratu behar zen egia ere ez zen istorio batean, hau goitik behera aldatuz objektibotasuna inposatzeko?

- Zure betebeharra hemen bukatzen da. Hemendik aurrera utz ezazu dena nire esku. Bihar jakin izango dute zure irakurle guztiek postariaren benetako istorioa -agindu zidan begi batez keinu eginez.

Onartzea baino ez zitzaidan gelditzen. Beraz, jarraian irakurri ahal izango duzuna ez dut nik idatzi, *berak* baizik. Hurrengo egunean mahaiaren eta idazlumaren arteko paper txurian, letra txukunez idatzita, hau aurkitu nuen:

"... eta hantxe kokatu zuen bere burua, mende-baldeko eta ekialdeko bi muino haien artean dztan herrian. Tamainaz txikia eta potoloa. Bere jantzi beltzei poltsikoan zeraman urrezko erlojuaren kateak ematen zien kolore apur bat. Fidagarritasun aurpegia eta izaera lasaia ere bazituen. Orduantxe hasi zen eguzkia muino atzetik aurpegi distiratsua erakusten.

Ekialdea. Poliki-poliki herria esnatzen ari da eta gaueko langileak etxera itzultzen diren heinean

goizekoek hau atzera uzten dute. Nik gosaltzeko leku apropos bat bilatzea pentsatu dut, herriak eguneroko funtzionamendua hartu arte. Bidetik pertsona batekin baino ez dut topo egin: etxetik bizikleta ateratzen ari zen gizon bat. Arraro samarra da, bere barnean argitu gabeko istorioren bat gordeko balu bezala.

Sabela bete eta berotu ostean, bertako bizimoduaren ikerketari hasiera emateko ordua iritsi da.

Ekialdetik mendebaldera. Goiza bukatzean dago eta nire gorputzari baikortasuna dario. Orain arte bizi izan dudana istorioa okerragoa zela onartu beharrean aurkitzen naiz, beraz, bizileku berria aurkitu dudala uste dut. Nire begi handien parean zortzi solairuko eraikuntza bat dago, eta nire harri-durarako, lehen ikusitako bizikletaren gizona bertan sartzen ari da, zazpigarren solairutik emakume batek lerdea dariola begiratzen dion bitartean. Orain bizikletaz gain larruzko poltsa handi bat darama.”

Une honetara iritsita geldiene bat zegoen, eta jarraipena orriaren beste aldean aurkitu nuen. Zergatik ez zuen jarraian idatzi?, izan zen neure buruari egin nion galdera. Geroago jakingo nuen ez zuela nahi ni bere iruzurraz konturatzea.

“Mendebaldea. Herriaren amaiera jada. Baita egunarena ere. Herri honekiko iritzia hobetzen joan da orduak aurrera egin ahala. Azkenean lortu dut aspalditik aurkitu gura nuen lekuan erortzea. Hemen geldituko naiz. Nola liteke? Gizon hori da berriro ere, baina... noski! Herriko postaria da.

Nolatan ez naiz jabetu lehenago horretaz? Gainera, egia da, ahaztuta nengoen. Bera da ni hona etorri izatearen arrazoia. Azalpen bat zor dizuet. Baina, beno, utz dezagun hori beste egun baterako...”

Ez nuen inoiz ezer gehiago jakingo gizon hari buruz, ezta postariaren istorioari buruz ere.